

# NOLA IRAUN LURGAINEAN

Berriketarako gogoak kentzen dituen liburua idatzi dute Edward Goldsmith, Robert Allen, Michael Allaby, John Davoll, eta Sam Lawrence jaunek. Ez dira edozein. Ingalaterrako jakintsu handiak ditugu. Hoielako batek baino gehiagok irabazia du "Nobel Saria". **MANIFIESTO PARA LA SUPERVIVENCIA** deituraz gaztelaniatu du "Alianza Editorial"ek.

"Gaurregun ditugun azterketarako bide eta gaiak agertzen dutenez, ondorio larri hauek heldu gara, diote. Ez dugu bizirik iraiteko erarik izango mende honen bukararako, gure seme-alabek ezparririk gabe ezagutuko dute biziaren azkena, gizadia eta bizirik bizirik iraiteko moldeak, desegiten ari diren joerak erro-erroetik mezten ez baditugu."

Beste batean diote:

"Miloi erdi inguru dira kimikak sorkari berriak. Noraino iritxiko dira hauek erabiltzeko datoen ondorioak? Ez dakigu. Jakin dakiguna hau da: dagoenez, gutxienez, 280 abere mota ugaztun, 350 egazti mota eta 20.000 landare mota arriskuan jartzen dituzte. Egia da, esango du norbaitek erdi negarrez, baina halere "Homo sapiens", gizakoa, arranoak edo loretoak baten baino gehiago balio du. Halakoa, arranoak eta loretoak behar duten bizi-arnasa beretik bizi behar duela gizona er gogorazten diegu. Ez da beharrezko bizi-gizakia desegitea ondandami bat sortzeko. Askari da egiten ari garena egitea: baso eta oihanak moztu, urez estalitateko lurrak lehortu, hauts hilgarriak, plastikoko zaborrak, ur zikinak, eta lantegietako ondakinak bota egurratsa, ibai, erreka, eta lurra bizi-giroaren orekari eta moldeei eusten dieten bizidunak galdu arte."

Lurreko bizi-moldeak desegiten ari gaitela diote. Neurtua dagoela bizi-borroka. Belar, landare, zomorru, puzia eta abere gaitzen indarra bat ere txarrik ez dutenen indarrak desegiten duela. Izadiak baduela bereko galga bat bizi-giroa gal eza dadin.

"Tropiko oihan baldurgarrietan ezin konta ahala zomorru da. Haler ez dituzte hango zuhaitzak jaten ez ihartzeten. Eta inori ez zaio lururazten oihan hoiek gal eza ditzen belar-galtzailak, zomorru-hiltzailak eta erdoil-kentzailak diren hautsez estaltzerik. Bestalde gure soro, belardi eta baratzak honelako hautsez estaltzen ditugu. Izadiaren hautsi ezinezko "legea" ahazten zaigu."

Izadia antzaratzen ari da gizona eta ondakin ez betetzen. Bide honetik berehalaxe lurjoko omen du. Hala da jakintsu hauek ustea. Eta ez da munduaren azkena, laster datorrela sinestuen dugu. Jeovaren Lekuak direlako. Arrazoi sendoak ematen dituzte.

Lau jarrera omen daude arazo larri honen aurkari:

Bat, arrazoiak ukatu, zoro ateraldiak direla esanaz.

Bestea, "Bihar hilko gara eta bitartean jan eta edan dezagun eta jolas gaitzen lasai".

Hirugarrena, "jakintsuek asmatuko dute zerbait gauzak kontzeptuko".

Hiru jarrera hauek ezjakinarenak edo zoroarenak edo arduragaberenak dira.

Beste bide bat hartu behar da, arrazoiak eta zentzumeneko bide egoki bat: arazoari aurpegi eman eta bizi-giroaren oreka aurkitu.

Oraindik ez da gure artean jendea behar bezala arazo hontaz jabetu. Gure ibaiak eta urak gero eta zikinagoak daude. Gure egurratsa gero eta beltzagoa kelarrez. Gure lurrak gero eta pozoituagoak. Gure mendietako arizti, pagadi, zumdari eta gaitzandiak gero eta soilduagoak. Egan, berriz, aldeplanoak besterik ez ditugu ikusten.

Neurriak hartzeko garaia heldu zaigu. Hontaz arduratzen direnei eta hontaz zerbait dakitenei dei egiten diegu. Astindu eta jorra dezatela arazo hau.

Ez dugu lurgainean bizi ahal izateko bizi-giroa galdu behar.

# LAN ASPERGARRIA

Aspergarririk gertatzen ari zaio lantegiko lana gizonari. Ez da gaurregun lana lehen bezain astuna gorputzarentzat. Ez da lehen haibait asto-lan egiten. Eta, agian, behin ere baino hobeto ordaintzen zaio egiten duen lana. Baina hau behearazteko aztertzeko dugu.

Halere «katean» egiten duen alna aspergarririk, gogaikarri eta nekagarri gertatzen zaio langileari.

Lan era erraza da langilearentzat eta etekin haundikoa nagusiarentzat «katean» egiten den lana. Horregatik ezartzen ari da lantegiaren lan era hau.

Baina langilea okitzen du luzaro baino lehen.

Sueziaiko Volvo automobiltegiaren ederki nabarmendu da aje hau. Langile askok aldegin du lantegi hontatik funtsezko arazoirik gabe. Beste asko gaixo itxura eginez etxean geratzen zen noiznahi. Gehienek erneaturik bizi ziren.

Zerk sortzen zuen langileengan gogorik eza hori?

Ordu gutxi eta ondo ordaindutako anal da Volvo-ko lana.

Baina «katean» egiten da,

Hori berbera ikusi da «katean» lan egiten den automo-

bilgintzako beste lantoki askotara ere. Hutsune nabarmeneko autoak atera izan dira. Eta ez noski, nagikeriaz edo alferkeriaz, hutsune hoiek ikusten ez zituztelako, nolabait barruko odol txarra agertzeatik bai-zik.

Lanak pozik egingo bada, baldintza batzuk, giro bat behar du. Beharrezkoa da burua erabiltzea, Ederki erabiltzen da artistaren eta inbestigatzailearen lanean. Bai pozik eta gogotsu jardun ohi direla bakoitzak bere lanetan. Biek ere beren lanean zerbait berrira sortu edo aurkitzen dute.

Bestalde, beharrezkoa da gorputza bizkorrazten duen eskulana ere. Horren ordezko besterik ez da kirola. Oso osasungarria gertatzen da eskulana bere neurri batean. Eta eskulnik ez duenak horren ordezko izango zaion kirola harpe behar gorputzaren osasunerako.

Baina itzul gaitzen berriro «katean» lan egiten den lantegi hoielako batera. Zer egiten du langileak? Gauza bera zortzi mila aldiz eguneroko. Azkererako akitia geratzen da. Ez du lan gehiegirik joarazi, lanik ezak baizik.

# KIRTENTZULO

—Uste duk hik benetan arrisku hori badagoela? Taldeko lagun asko ezagutzen diat nik, eta gehienak jatorrak dituz; ez dituk irizti horretakoak...

—Uste duk hik hori? Ez, motel! Euskaldunok ez gaituk horrelakoak, eta horien artean ere gehienak ez zeudek horretan...

—Uste duk hik? Fantasmak ikusten dituk. Gehienak...

Lelokeria horiek behin eta berriz eta berriz entzun izanak leporaino gauzka. Gehienek hau, gehienek hori, gehienek hura... Eta, zer axola guri gehienak zertan dauden? Zer axola izan duela inoiz «gehiengo isil» horiek kondairaren obrakuntzan? Non dira, edo non izan dira, nagusi «mayoria silenciosa» horiek?

Gehiengo isilak zertan dauden berdin zaigu!

Horra hor ene erantzuna argi-eta-garbi. Zergatik? Santigoren, Atenasen, Moskun, Bifar, Pragan, Lhasan, Budapesten, Rhodesian, Rio de Janeiroan, Uruguyan, Kowaiten, Republica Dominicanan, Persian, eta zuk dakizun herrialde horretan, gehiengo isilak oro zanpaketa- egunean «kaputt», eta biharmunean txalo eta irribarre nagusi berriari. Egia latza hauze izanik, zer ari gara gu, politika analfabetismoaren «merckx» arteko super-«merckxok», «gehiengo» zertan dauden galdetzen? Zer axola? Zer gehiengo eta zer deburu?

Zer da, izan, «majorité silencieuse» famatu horri egiten ohi zaion gorantz faltua, kaskabel maltzurak harrapakinari entzun erazten duen sasi-txiloin soinu atsegina baizik?

Populuak zapaltzenago, eta «majorité silencieuse» horiek goriatzenago. Casanova lotzagaldu bortsatu nahi dituzten emakumeen laudorioak gorieniki egin ohi dituzten bezalaxe.

Gehiengo isil guztien ezagugarri bakarra, berekoheria eta zirtzikeria dira. Gehiengo isilen menpeko jartzea, eskasiaren eta zirkozkeriaren morroin bilakaztea litzake, Che Guevarak eta Luther Kingek sinetsi egiten zuten; automobila edo futbol jaunkotzen dituzten populuek ez, Gehiengo isilak, horregatik, ez zaizkigo batera axola; eta agure etsaiei ere, sinetsita egin, zipitzik ere ez.

Kondairaren giltzarria gutxiengoak dira, minoriak, eta hauek eskuetan lortzen dituzten gizarte-aparatoak. Herrien

gila makinaren morroi soil basterik ez da.

«Ipar-amerikako langile askok, dio Stanghton Lpnd-ek, egiten duen lanak ez du zikinik, ez du nekerrik, ez du molde haundirik eskatzen, baina aspergarrria, gogaikarria eta doilorra da. Gizon hauek nagikerian eta goibeldian jausten dira, gizon izateaz galtzen dute eta automata bihurtzen dira.»

Iritzirik da gure artera ere gaitz hau. Oso aldapa gora egiten zaizkie lantegiko orduak. Badira horregatik lantegiz aldatutako langileak dagoeneko.

Bestalde, bizitza garestitzen ari da egunetik egunerako. Nagusiek, ez dute ahal badute, lan-saririk jaso nahi. Nahaia-

zeuk, zer diostazu? Maiz eman-na?

Hortaz! Zer ari gara esaten? Gizonik gehienak hil, hiltzen eta hilko dira boto-bidez kondairaren hildoa inoiz azbete batez ere aldatu ez dutelarik.

Baina, egon apur batez oraino! Boza «dibrok» emateko aukera izan duen horietaz, zer esango? A. Conte jaunaren arazo hitsa hor dute oraindik ere zalantzak izan zitazketenik; eta hori Frantziarik Zergatik?

Irratia, Telebista, Eskola, Unibertsitatea, Armada, Eliza, Kapitala, norik kontrola eta goberna, eta «gehiengo isil» famatu hori bere alde horietaz izango duelako. Eta gainerakoak ere... kasu! Gehiengo libereza gezurra baita!"

Hortaz, zer? Askoz ere kezkatzenago naute ni artikuluko hau irakurriko duten gutxi horiek, irakurriko ez duten gehiengo guztiek baino.

Populuek ez dutela, hortaz, kondaira egiten? Noski! Miraria litzake etxe-barneko arazoek eta eginkizuez gaituzten horiek dauden horietzek, «res-publika» fisiek ez dakiten horietzek, herriaren buruhautek eta zanpaketz futitzen diren horietzek, kondairaren harria beren eskutan atxikitzea! Nola liteke horrelakorik? Nola liteke «Philipsen» etorkizuna «Philipsen» problemez futitzen direnen eskutan egotea?

«Kondaira populuek egiten ez badute, beraz, jasan egiten dute»... Noski! Nor urratuko ditu orain bere soinekoak? Stalinistik agian? Pinocheten lagunek? Hemengo eta hango Watergate guztien «aprobexa-tegiek»?

Kondairaren mailan, gehiengo isilen HUTSA baizik ez da. Kondaira at mamitzen da.

Gutiengoek egiten dute kondaira, gaur eta beti. Buruzagitzak nora, populuek hara. Eta gure galdera BAKARRA, beraz, hau izan behar: ZERTAN DIRA BURUZAGITZAK?

Kondaira-burruak «gehiengo isil» horietatik at gertatzen dira.

Eta burruka horiek, akademizale eta super-intelektuak kontra garbiki aitortu dezagun, gutxi, baina, bakanka baizik ez dira bakeko jardunak.

Kondaira honela egiten da, eta ez kondatu zaigun bezala.

«Ene! Nora goaz, hortaz? Xuxenki ez dakit.»

Baina zein zozo-zulotatik IR-TEN BEHAR DUGUN behintzat gauza ezaguna zait; ezen gu gauden zulo honen atarian, hau irakurri bainuen sartzerakoan: «KIRTENTZULO».

LARRESORO

IRASTORTZA